

SALGAIAK / MERCANCIAS

A

2024/03/22



1. Nondik datoz martxan dagoen kamioi bati eragiten dioten itsaspen indarrak?
a. Indar zentrifugotik eta indar eragiletik
b. Balaztatzetik eta gidatze-indarretik
c. Biraketa-pareetatik eta gurpil-pareetatik.
d. Marruskaduratik eta erakarpenetik.

1. Las fuerzas de adherencia que intervienen en un camión en marcha resultan:
a. de la fuerza centrífuga y la fuerza motriz.
b. del frenado y de la fuerza de guiado.
c. de los pares de viraje y los pares de rueda.
d. de la fricción y de la atracción.

2. Zeri eragiten dio kargaren banaketa okerrak?
a. Ibilgailuaren egonkortasunari.
b. Kargaren pisu espezifikoari.
c. Kargaren grabitate zentroari.
d. Alboko termoteknia indarrari.

2. ¿A qué afecta la incorrecta distribución de la carga?
a. A la estabilidad del vehículo.
b. Al peso específico de la carga.
c. Al centro de gravedad de la carga.
d. A la fuerza termoteknia lateral.

3. Zein faktorek eragin diezaioke ibilgailuaren egonkortasunari?
a. Alboko termoteknia indarrak.
b. Grabitate zentroaren kokapenak.
c. Masa erradialak.
d. Altxa daitekeen masa garbiak.

3. Un factor que puede afectar a la estabilidad del vehículo es:
a. la fuerza termoteknia lateral.
b. la posición del centro de gravedad.
c. la masa radial.
d. la masa neta que se puede levantar.

4. 1/2005 (EE) Erregelamenduak, animaliak garraiatzean haiek babesteari buruzkoak, dioenari jarraikiz, edoskitzaroan dauden ardi-espezieko emeak, baldin eta beren kumeekin ez badoaz, gehienez ere tarte hauetan jetzi behar dira:
a. 2 ordu.
b. 4 ordu.
c. 12 ordu.
d. 36 ordu.

4. Según el Reglamento (CE) 1/2005, relativo a la protección de los animales durante su transporte, las hembras de la especie ovina en período de lactancia que no vayan acompañadas de sus crías deberán ser ordeñadas a intervalos no superiores a:
a. 2 horas.
b. 4 horas.
c. 12 horas.
d. 36 horas.



5. Zein dira salgaiak errepidez garraiatzeko enpresa bateko trafiko buruaren berezko eginkizunak?	
a.	Enpresarako garraio eragiketak bilatzea.
b.	Gidarien errendimendua kontrolatzea.
c.	Flota kudeatzea.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

5. ¿Cuáles son las funciones propias del jefe de tráfico de una empresa de transporte de mercancías por carretera?	
a.	Buscar operaciones de transporte para la empresa.
b.	Controlar el rendimiento de los conductores.
c.	Gestionar la flota.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

6. Zeren araberako sailkapena da garraioa bidaiarien eta salgaien arabera sailkatzea?	
a.	Esparruaren araberakoa.
b.	Objektuaren araberakoa.
c.	Objektuaren espezifikotasunaren eta araubide juridikoaren araberakoa.
d.	Izaeraren araberakoa.

6. La clasificación de los transportes en viajeros y mercancías es una clasificación en función de:	
a.	su ámbito.
b.	su objeto.
c.	la especificidad de su objeto y su régimen jurídico.
d.	su naturaleza.

7. Nola esaten zaio Europar Batasuneko estatu kide guztiek beren eremuaren barruan nazioarteko garraioa egiteko baimena ematen duen agiri komunari?	
a.	Baimen arrunta.
b.	Garraio txartela.
c.	Europar Batasuneko lizentzia.
d.	Aldebiko baimena.

7. ¿Cómo se denomina el documento común a todos los Estados miembros de la Unión Europea que autoriza a realizar transporte internacional dentro de su ámbito?	
a.	Permiso común.
b.	Tarjeta de transporte.
c.	Licencia comunitaria.
d.	Autorización bilateral.

8. Errepideko garraiorako, zein norabidetan eutsi behar zaie metalezko zutabeei?	
a.	Bertikalean.
b.	Zeharka.
c.	Luzetara.
d.	Hiru norabideetan.

8. Para un transporte por carretera, ¿principalmente en qué sentido deben sujetarse los pilares metálicos?	
a.	En sentido vertical.
b.	En sentido transversal.
c.	En sentido longitudinal.
d.	En sentido horizontal.



9. Espainian matrikulatutako ibilgailu batek Polonian kargatzen duenean Errusiarako, honako eragiketa hau egiten du:	
a.	kabotajeko zerbitzua.
b.	triangeluar hutsa.
c.	triangeluar irregularra.
d.	triangeluar konbinatua.

9. Cuando un vehículo matriculado en España carga en Polonia con destino a Rusia, realiza una operación denominada:	
a.	servicio de cabotaje.
b.	triangular pura.
c.	triangular irregular.
d.	triangular combinada.

10. Bakarrik doan garraio konbinatuaz ari gara:	
a.	erdiatoia bakarrik kargatzen denean, trakzio-buruaren eta gidariaren bidaia saihestuz.
b.	ibilgailua bakarrik kargatzen denean, gidariaren bidaia saihestuz.
c.	bi gidari dituen ibilgailu batean, erdiatoia kargatzean, gidarietako batek harekin bidaiatzen duenean eta bestea trakzio-buruarekin geratzen denean.
d.	konbinazioetako bat garraio gutunik gabe egiten denean.

10. Hablamos de transporte combinado no acompañado cuando:	
a.	cargamos solo el semirremolque, evitando el viaje de la cabeza tractora y el conductor.
b.	cargamos solo el vehículo, evitando el viaje del conductor.
c.	en un vehículo con dos conductores, al cargar el semirremolque, uno viaja con él y el otro se queda con la cabeza tractora.
d.	una de las combinaciones se hace sin carta de porte.

11. Istripua izan duten ibilgailuak kabotaje erregimenean garraiatzea liberalizatuta al dago Europar Batasunean?	
a.	Ez.
b.	Bai.
c.	Ez dago garraio liberalizaturik.
d.	Bai, baina baimendutako ibilgailuak 5 tonatik gorako karga erabilgarria badu bakarrik.

11. El transporte de vehículos accidentados, efectuado en régimen de cabotaje, ¿es un transporte liberalizado en la Unión Europea?	
a.	No.
b.	Sí.
c.	No existe el transporte liberalizado.
d.	Sí, pero solo si el vehículo autorizado tiene una carga útil superior a 5 toneladas.

12. Errepideko garraioan kontsumitutako energiaren zein ehuneko dagokio salgaien garraioari?	
a.	% 20 inguru.
b.	% 35 inguru.
c.	% 50 inguru.
d.	% 65 inguru.

12. ¿Qué porcentaje de la energía consumida en transporte por carretera corresponde al transporte de mercancías?	
a.	En torno al 20 %.
b.	En torno al 35 %.
c.	En torno al 50 %.
d.	En torno al 65 %.



13. Aipatzen direnetatik, zein da kamioiak aurrera egiteko duen erresistentzietako bat?	
a.	Marruskaduragatiko erresistentzia.
b.	Dezelerazio indarra.
c.	Klimatologia txarraren erresistentzia.
d.	Potentziarekiko erresistentzia.

13. De las que se citan, ¿cuál constituye una resistencia al avance del camión?	
a.	La resistencia al rozamiento.
b.	La fuerza de deceleración.
c.	La resistencia de la climatología adversa.
d.	La resistencia a la potencia.

14. Europar Batasunaren barruko norberaren konturako salgaien nazioarteko garraioei buruz ari garela:	
a.	Europar Batasuneko lizentzia baten babesean egingo dira.
b.	Alde biko baimena behar dute.
c.	Norberaren konturako garraiorako ziurtagiri baten babesean egingo dira.
d.	Ez dute baimenik edo ziurtagirik behar.

14. Los transportes internacionales de mercancías por cuenta propia dentro de la Unión Europea:	
a.	se realizarán al amparo de una licencia comunitaria.
b.	necesitan una autorización bilateral.
c.	se realizarán al amparo de un certificado para transporte por cuenta propia.
d.	no necesitan de ningún documento específico que los autorice o certifique.

15. CMR hitzarmenari lotutako garraio kontratu batean, zer epetan adierazi behar ditu hartzaileak bere erreserbak, galera nabarmenak badaude?	
a.	Entregaren une berean.
b.	Zazpi eguneko epean.
c.	Zazpi eguneko epean, igandeak eta jaiegunak kenduta.
d.	Hamabost eguneko epean.

15. En un contrato de transporte sujeto al Convenio CMR, ¿en qué plazo debe manifestar sus reservas el destinatario en caso de que existan pérdidas manifiestas?	
a.	En el mismo momento de la entrega.
b.	En el plazo de siete días.
c.	En el plazo de siete días, descontados domingos y festivos.
d.	En el plazo de quince días.



16. Aduana-araudiaren eremuan, zeri esaten zaio igarotze komuna?	
a.	Salgaiak Europar Batasuneko lurraldeko bi punturen artean garraiatzeko erabiltzen den aduana igarotzeko erregimen bati.
b.	Europar Batasunaren eta Europako Merkataritza Askeko Elkarteko herrialdeen artean salgaiak garraiatzeko erabiltzen den aduana igarotzeko erregimen bati.
c.	Europar Batasuneko salgaiak Batasuneko aduana-lurraldeko bi punturen artean garraiatzeko erabiltzen den aduana igarotzeko erregimen bati, ibilbidean Europako Merkataritza Askeko Elkarteko herrialde bat zeharkatu behar badu.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

16. ¿A qué se denomina tránsito común en el ámbito de la normativa aduanera?	
a.	A un régimen de tránsito aduanero utilizado para el transporte de mercancías entre dos puntos del territorio de la Unión Europea.
b.	A un régimen de tránsito aduanero utilizado para el transporte de mercancías entre la Unión Europea y los países de la Asociación Europea de Libre Comercio.
c.	A un régimen de tránsito aduanero utilizado para el transporte de mercancías de la Unión entre dos puntos del territorio aduanero de la Unión, que deba atravesar en su recorrido un país de la Asociación Europea de Libre Comercio.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

17. Europar Batasunetik igarotze erregimenean egindako garraioen kasuan, zer hartzen da helmugako aduanatzat?	
a.	Salgaiak iristen diren lekutik hurbilen dagoen aduana.
b.	Europar Batasuneko aduana-lurraldetik irteteko aduana.
c.	Salgaiak aurkezten diren aduana, igarotze erregimenari amaiera emateko.
d.	Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

17. En el caso de transportes efectuados en régimen de tránsito de la Unión, ¿qué se considera aduana de destino?	
a.	La aduana más próxima al lugar de llegada de las mercancías.
b.	La aduana de salida del territorio aduanero comunitario.
c.	La aduana en la que se presentan las mercancías para poner fin al régimen de tránsito.
d.	Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

18. Nola esaten zaio Marokon kargatu, Espainia zeharkatu eta Ukrainara doan ibilgailu espainiar batek egiten duen garraioari?	
a.	Eragiketa trianguluar purua.
b.	Eragiketa trianguluar osoa.
c.	Eragiketa trianguluar irregularra.
d.	Eragiketa trianguluar erregularra.

18. ¿Cómo se denomina al transporte que realiza un vehículo español que carga en Marruecos y atraviesa España con destino a Ucrania?	
a.	Operaciones triangulares puras.
b.	Operaciones triangulares plenas.
c.	Operaciones triangulares irregulares.
d.	Operaciones triangulares regulares.



19. Kontratua amaitzeko, zer aurrerapenekin egin behar da iraupen mugagabeko garraio jarraituko kontratu baten salaketa, aldeetakoren batek fede onez egindakoa?	
a.	30 egun.
b.	60 egun.
c.	90 egun.
d.	Ez da aurrerapenik eskatzen, baldin eta beste aldeak jaso izanaren adierazpena badugu.

19. ¿Con qué antelación se debe efectuar la denuncia hecha de buena fe por cualquiera de las partes de un contrato de transporte continuado de duración indefinida, para la extinción del mismo?	
a.	30 días.
b.	60 días.
c.	90 días.
d.	No se exige antelación, siempre que conste de modo fehaciente su recepción por la otra parte.

20. ATP Akordioaren arabera, zer de FRF letrekin identifikatutako ibilgailu bat?	
a.	Ez dago horrelako ibilgailurik.
b.	F motako hozkailu ibilgailu indartua.
c.	N motako hozkailu ibilgailu indartua.
d.	F motako ibilgailu isoterma arrunta.

20. Según el acuerdo ATP, ¿qué es un vehículo identificado con las letras FRF?	
a.	Esta clase de vehículo no existe.
b.	Un vehículo frigorífico reforzado de la clase F.
c.	Un vehículo frigorífico reforzado de la clase N.
d.	Un vehículo isoterma normal de la clase F.

21. Noiz aurkeztu behar da salgaiak Europar Batasuneko aduana-lurraldetik atera aurreko aitortpena, errepideko garraioaren kasuan?	
a.	Gehienez ere, salgaiak atera baino ordubete lehenago.
b.	Gehienez ere, salgaiak atera baino egun bat lehenago.
c.	Gehienez ere, salgaiak atera eta ordubetera.
d.	Gehienez ere, salgaiak atera eta egun batera.

21. ¿Cuándo se debe presentar la declaración previa a la salida de mercancías del territorio aduanero de la Unión, en el caso de transporte por carretera?	
a.	A más tardar, una hora antes de que las mercancías vayan a salir.
b.	A más tardar, un día antes de que las mercancías vayan a salir.
c.	A más tardar, una hora después de que las mercancías salgan.
d.	A más tardar, un día después de que las mercancías salgan.



22. Administrazio kontroleko dokumentuan, ibilgailu multzo artikulatu batek garraioa egiten badu, zer matrikula jaso behar da?	
a.	Garraio kontratuan jasotako traktorearenak eta erdiatoiarenak.
b.	Garraioa hasteko erabiltzen den traktorearena bakarrik.
c.	Garraioan zehar ibilgailua aldatzen bada, jasota utzi behar da.
d.	Garraioan zehar trakzio ibilgailua aldatzen bada bakarrik adierazi behar da.

22. En el documento de control administrativo, si el transporte lo lleva a cabo un conjunto articulado, ¿qué matrícula debe hacerse constar?	
a.	Las del tractor y semirremolque que aparezcan reflejados en el contrato de transporte.
b.	Sólo la del tractor con el que se inicia el transporte.
c.	Si durante el transporte se produce un cambio de vehículo, se debe hacer constar.
d.	Sólo si se produce un cambio de vehículo tractor durante el transporte, se debe hacer constar.

23. Zer dokumentu eraman behar da ibilgailuan 12 orduz animalia biziak garraiatzean?	
a.	Ibilbide orria, geldialdiak adierazita.
b.	Zaintza- eta elikadura-plana.
c.	Garraioaren baimena.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

23. ¿Qué documento debe ir a bordo del vehículo durante un transporte de animales vivos de 12 horas de duración?	
a.	Hoja de ruta con indicación de pausas.
b.	Plan de cuidados y alimentación.
c.	Autorización del medio de transporte.
d.	Todas las respuestas son correctas.

24. Animalia biziak garraiatzen dituzten ibilgailuek barruan eraman behar al dute garraiolariaren baimena jardura horretarako?	
a.	Zaldien garraioaren kasuan bakarrik.
b.	Garraioak 12 ordu baino gehiago iraungo duenean bakarrik.
c.	Gaixorik dauden animalien garraioaren kasuan bakarrik.
d.	Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

24. Los vehículos que realizan un transporte de animales vivos, ¿deben llevar a bordo la autorización del transportista para esa actividad?	
a.	Solo en el caso de transporte de equinos.
b.	Solo cuando el transporte vaya a durar más de 12 horas.
c.	Solo para el caso del transporte de animales enfermos.
d.	Todas las respuestas son incorrectas.



25. Ibilgailu baten mugimenduari dagokionez, zer dira inertzia pareak?	
a.	Haren ardatz horizontalean esku hartzen duten indarrak.
b.	Haren gainean jarduten duten indarrak, batez ere azeleraziokoak.
c.	Gurpilek daramaten biraketa-noranzkoa mantentzen saiatzen diren indarrak.
d.	Haren ardatz bertikalean esku hartzen duten indarrak.

25. En relación con el movimiento de un vehículo, ¿qué son los pares de inercia?	
a.	Unas fuerzas que intervienen sobre su eje horizontal.
b.	Las fuerzas, principalmente de aceleración, que actúan sobre él.
c.	Las fuerzas que intentan conservar el sentido de giro que llevan las ruedas.
d.	Unas fuerzas que intervienen sobre su el eje vertical.

26. Zer dakar gidaldiak eta atsedenaldiak kontrolatzeko aparatuek ez izatea horiek erabiltzera behartuta dagoen ibilgailu batean?	
a.	Falta larria.
b.	Falta oso larria.
c.	Falta arina.
d.	Ez da arau haustetzat jotzen.

26. ¿Cómo se considera la carencia del aparato de control de los tiempos de conducción y descanso en un vehículo obligado a su utilización?	
a.	Falta grave.
b.	Falta muy grave.
c.	Falta leve.
d.	No se considera infracción.

27. Nola esaten zaio, sute bat itzaltzeko, erregaiaren tenperatura murriztean datzan metodoari?	
a.	Hoztea.
b.	Diluzioa.
c.	Disoluzioa.
d.	Deselikatzea.

27. ¿Cómo se denomina el método de extinción de un incendio consistente en reducir la temperatura del combustible?	
a.	Enfriamiento.
b.	Dilución.
c.	Disolución.
d.	Desalimentación.

28. Jarraibide hauetatik, zein da okerra martxa-erlazio altuagoa aukeratzeko?	
a.	Eskuliburuan egiaztatu behar da eragiketaren maila optimoa motorraren biraketen arabera.
b.	Asfaltoaren marruskadura-koefizientea behatu behar da.
c.	Zer abiaduratan zirkulatzen den egiaztatu behar da.
d.	Maldak badaude, desnibela hartu behar da kontuan.

28. De las siguientes indicaciones, ¿cuál es incorrecta para seleccionar una relación de marchas más alta?	
a.	Comprobar en el manual el rango óptimo de operación, según las revoluciones del motor.
b.	Observar el coeficiente de rozamiento del asfalto.
c.	Comprobar la velocidad a la que se circula.
d.	Observar el desnivel si hay pendientes.



29. Zer da motor-balazta?	
a.	Auto guztiek duten balazta pedala erabiltzea.
b.	Balazta pedala eta esku frenoaldi berean erabiltzea.
c.	Esku balazta erabiltzea.
d.	Motorra abiadura murrizteko erabiltzea.

29. ¿Qué es el freno motor?	
a.	La utilización del pedal de freno que tienen todos los coches.
b.	La utilización simultánea del pedal de freno y el de mano.
c.	La utilización del freno de mano.
d.	La utilización del motor para poder reducir la velocidad.

30. Zer funtzio betetzen dute mantenugaiek?	
a.	Bizitzeko beharrezko energia lortzea.
b.	Organoak osatzea eta mantentzea.
c.	Gure organismoan gertatzen diren prozesu guztiak arautzea.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

30. ¿Qué funciones cumplen los nutrientes?	
a.	Conseguir la energía necesaria para realizar las funciones vitales.
b.	Formar y mantener órganos.
c.	Regular todos los procesos que tienen lugar en nuestro organismo.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

31. Eserita lan egiten denean, zein jarrera hartu behar da?	
a.	Eserlekuaren ertzean eserita, behar diren elementu guztietara iristeko.
b.	Eserita, gerrialdea eserleku bizkarraren kontra jarrita eta oinak lurtean guztiz bermatuta.
c.	Eserlekuaren ertzean eserita, oinak aurrealdera zertxobait inklinatuta.
d.	Eserita, gerrialdea eserleku bizkarraren kontra jarrita eta lurtean oin puntak bakarrik bermatuta.

31. Al trabajar sentado, ¿cómo debe ser la posición?	
a.	Sentado en el borde del asiento para alcanzar todos los elementos necesarios.
b.	Sentado apoyando contra el respaldo la zona lumbar y apoyando los pies en el suelo completamente.
c.	Sentado en el borde con los pies ligeramente inclinados hacia delante.
d.	Sentado apoyando contra el respaldo la zona lumbar y apoyando únicamente las puntas de los pies.

32. Langilearen prebentzio betebeharra da:	
a.	Babes neurriak hartzea.
b.	Saihets daitezkeen arriskuak saihestea.
c.	Laneko metodoak errespetatzea.
d.	prestakuntza eta informazioa ematea.

32. Es una obligación de prevención del trabajador:	
a.	adoptar medidas de protección.
b.	evitar riesgos evitables.
c.	respetar los métodos de trabajo.
d.	formar e informar.



33. Garraioaren jatorriaren eta helmugaren arteko lerro zuzenean 100 km-tik gorakoa ez den distantzia, abeletxe, tokiko merkatu eta hiltegien artean animalia biziak garraiatzen dituen:	
a.	Takografoa erabiltzetik salbuetsita dago.
b.	Takografoa erabiltzera behartuta dago, eta analogikoa izango da.
c.	Takografoa erabiltzera behartuta dago, eta digitala izango da.
d.	Takografoa erabiltzera behartuta dago.

33. La realización de transportes de animales vivos entre granjas, mercados locales y mataderos, en una distancia no superior a 100 km en línea recta entre origen y destino del transporte, está:	
a.	exento del uso de tacógrafo.
b.	obligado al uso de tacógrafo, pero analógico.
c.	obligado al uso de tacógrafo, pero digital.
d.	obligado al uso de tacógrafo.

34. Funtsak edo balio handiko objektuak horretarako bereziki hornitutako ibilgailuetan garraiatzen dituen:	
a.	Takografoa erabiltzera behartuta dago, eta analogikoa izango da.
b.	Takografoa erabiltzetik salbuetsita dago.
c.	Takografoa erabiltzera behartuta dago.
d.	Takografoa erabiltzera behartuta dago, eta digitala izango da.

34. La realización de transportes de fondos u objetos de valor en vehículos especialmente equipados para ello está:	
a.	obligada al uso de tacógrafo, pero analógico.
b.	exenta del uso de tacógrafo.
c.	obligada al uso de tacógrafo.
d.	obligada al uso de tacógrafo, pero digital.

35. 4 ordu eta erdiko gidaldian, gidariak zenbat denborako etenaldia egin behar du gutxienez?	
a.	35 minutukoa.
b.	30 minutukoa eta ondoren, gutxienez 10 minutuko beste etenaldi batzuk, guztira 30 minutukoak.
c.	15 minutu, eta, ondoren, gutxienez 30 minutuko beste bat, gidaldi horretan tartekatuta.
d.	40 minutu.

35. Para sustituir la pausa de 45 minutos, en un período de conducción de 4 horas y media de conducción el conductor debe efectuar una pausa de, al menos:	
a.	35 minutos.
b.	30 minutos, seguida de otras interrupciones de, al menos, 10 minutos que sumen en total 30 minutos.
c.	15 minutos, seguida de otra de, al menos, 30 minutos, intercaladas en dicho período de conducción.
d.	40 minutos.



36. Energia aurrezteko:	
a.	Abio erlazioak irteera leuna eta ia azeleratu gabea ahalbidetu behar du.
b.	Ez da gomendagarria maldetan zirkulatzean abiadurak saltatzea.
c.	Energia potentziala handitu behar da.
d.	Itsaspena eta direkzioa hobetu behar ditu.

36. Para conseguir ahorro de energía:	
a.	la relación de arranque debe permitir una salida suave y casi sin acelerar.
b.	no es recomendable saltarse velocidades al circular por pendientes.
c.	se debe aumentar la energía potencial.
d.	se debe mejorar la adherencia y la dirección.

37. Adiskidetasunezko istripu-adierazpena baliozkoa izan dadin, nork sinatu behar du?	
a.	Gidariak eta istripuaren lekukoak.
b.	Istripuan inplikaturako gidariak.
c.	Nahikoa da errudun deklaratu den gidariak sinatzea.
d.	Inplikaturako ibilgailuen titularrek edo haien ordezkariak.

37. Para que la declaración amistosa de accidente sea válida, ¿por quién tiene que estar firmada?	
a.	Por los conductores y los testigos del accidente.
b.	Por los conductores implicados en el accidente.
c.	Basta con que la firme el conductor que se declare culpable.
d.	Por los titulares de los vehículos implicados o sus representantes.

38. Adierazi zein den erantzun okerra.	
a.	Balaztatzeko denbora gehiago izateko, gidariak abiadura murriztu beharko duela aurreikusi behar du.
b.	Gidariak aurreikusten badu abiadura murriztu beharko duela, ibilgailuaren inertzia dinamiko erabiliko da motorren barne marruskadurak gainditzeko.
c.	Ibilgailuaren inertzia dinamiko erabiliz, kontsumoa murriztu egiten da.
d.	Ibilgailuaren inertzia dinamiko erabiliz, balazten higadura areagotu egiten da.

38. Señale la respuesta incorrecta.	
a.	Para tener más tiempo para frenar, el conductor debe prever que va a necesitar reducir la velocidad.
b.	Si el conductor prevé que va a necesitar reducir la velocidad, será la inercia dinámica del vehículo la que se gaste en vencer los rozamientos internos del motor.
c.	Utilizando la inercia dinámica del vehículo, el consumo disminuye.
d.	Utilizando la inercia dinámica del vehículo, el desgaste de frenos aumenta.

39. Zein da agente itzaltzailerik onena A motako suetarako, hala nola egurrari edo moketa bati eragiten dioten suetarako?	
a.	Nitrogenoa.
b.	Ura txorrotadaka.
c.	Ura langarreztatua.
d.	Hidrogenoa.

39. ¿Cuál es el mejor agente extintor para fuegos de tipo A, como el que afecta a la madera o a una moqueta?	
a.	El nitrógeno.
b.	El agua a chorro.
c.	El agua pulverizada.
d.	El hidrógeno.



40. Garraioaren sektoreko lan istripu hauen artean, zein da forma ez-traumatikoa duen istripua?	
a.	Pertsonak maila berera erortzea (dauden azalera berean).
b.	Ibilgailuek eta makineria osagarriak harrapatzea.
c.	Bibrazioekiko esposizio jarraitua.
d.	Gaixotasun kardiobaskularrak.

40. ¿Cuáles de los siguientes accidentes de trabajo en el sector del transporte están considerados como accidentes con forma no traumática?	
a.	Caídas de personas al mismo nivel (en la misma superficie en la que se encuentra).
b.	Atropellos por vehículos y maquinaria auxiliar.
c.	Exposición continuada a vibraciones.
d.	Enfermedades cardiovasculares.

41. Garraioaren sektorean, lan istripu hauetako zein da maiztasun txikiagokoa?	
a.	Gehiegizko esfortzuak.
b.	Deskarga elektrikoak.
c.	Bibrazioekiko esposizio jarraitua.
d.	Lanabesekin eta beste objektu batzuekin hartutako kolpeak.

41. En el sector del transporte, ¿cuál de los siguientes accidentes de trabajo es menos frecuente?	
a.	Sobreesfuerzos.
b.	Descargas eléctricas.
c.	Exposición continuada a vibraciones.
d.	Golpes con herramientas y otros objetos.

42. Garraioaren lan-istripuetan, zer jarduerak eragiten ditu gelditze kardiakoak eta heriotza sarrien?	
a.	Erreminta akastunak edo higatuak erabiltzea.
b.	Laneko posizio okerra izatea.
c.	babes-elementuak ez erabiltzea, (hala nola betaurrekoak, eskularruak eta botak).
d.	Ibilgailuaren zamak linea elektrikoak ukitzeak.

42. En la actividad de transporte, ¿qué circunstancia causa paradas cardíacas y la muerte con más frecuencia?	
a.	Herramientas defectuosas o desgastadas.
b.	Posición de trabajo incorrecta.
c.	No utilización de elementos de protección (gafas, guantes, botas).
d.	Contacto de la carga del vehículo con tendidos eléctricos.

43. Ibilgailuaren karga maneiatzeko behar den esfortzu motak arrisku mailan eragiten du. Hortaz, seguruagoa da manipulazioa honela egitea:	
a.	esfortzu leunekin.
b.	esfortzu handiekin.
c.	behar besteko errekupeazio denborarik gabe egindako esfortzuekin.
d.	gorputza inklinatuz edo okertuz.

43. El tipo de esfuerzo requerido para el manejo de la carga del vehículo influye en el nivel de riesgo. Así, es más segura la manipulación que se realice con:	
a.	esfuerzos suaves.
b.	esfuerzos intensos.
c.	esfuerzos realizados sin tiempo de recuperación suficiente.
d.	inclinaciones del cuerpo o torciéndolo.



44. Seinale batean "P" eta "N" letrek gurutze baten alde bakoitzean, zer adierazten dute?	
a.	Bidegurutze bat hurbil dagoela adierazten dute.
b.	Trenbide-pasagune bat hurbil dagoela adierazten dute.
c.	Zirkulazioaren noranzkoaren erreietara itzultzeko beharra adierazten dute.
d.	Errei bat amaitzean dagoela adierazten dute.

44. Las letras "P" y "N" una a cada lado de un aspa, ¿qué indican?	
a.	Indican la proximidad de una bifurcación.
b.	Indican la proximidad de un paso a nivel.
c.	Indican la necesidad de retornar a los carriles del sentido de circulación.
d.	Indican la proximidad de finalización de un carril.

45. Nork du gidaldiei eta atsedenaldiei buruzko arauak errespetatzeko ardura?	
a.	Enpresek bakarrik.
b.	Gidariak.
c.	Enpresek eta gidariak.
d.	Enpresek, bidaltzaileak, garraio-bitartekariak, turismo-operadoreak, kontratista nagusiek, azpikontratistek eta gidariak enplegatutako agentziak.

45. ¿Quién es responsable de que se respeten las normas de tiempos de conducción y descanso?	
a.	Solo las empresas.
b.	Los conductores.
c.	Las empresas y los conductores.
d.	Las empresas, los expedidores, transitarios, operadores turísticos, contratistas principales, subcontratistas y las agencias de colocación de conductores.

46. Zertarako erabiltzen dira mantak?	
a.	Solidoetako suteetarako.
b.	Jantzietako suteetarako.
c.	Gasetako suteetarako.
d.	Likidoetako suteetarako.

46. ¿Para qué fuegos se suelen emplear las mantas?	
a.	Para fuegos en sólidos.
b.	Para fuegos en la ropa de las personas.
c.	Para fuegos en los gases.
d.	Para fuegos en los líquidos.

47. Zenbat eta txikiagoa izan abiadura-kaxan gertatzen den desmultiplikazioa:	
a.	Orduan eta indar txikiagoa transmitituko du motorrak gupil eragileetara.
b.	Orduan eta indar handiagoa transmitituko du motorrak gupil eragileetara.
c.	Orduan eta indar txikiagoa transmitituko du motorrak enbragera.
d.	Orduan eta indar handiagoa transmitituko du motorrak enbragera.

47. Cuanto menor sea la desmultiplicación que se produzca en la caja de velocidades:	
a.	menor fuerza transmitirá el motor a las ruedas motrices.
b.	mayor fuerza transmitirá el motor a las ruedas motrices.
c.	menor fuerza transmitirá el motor al embrague.
d.	mayor fuerza transmitirá el motor al embrague.



48. Zein da istripuen adiskidetasunezko jakinarazpenaren helburu nagusia?	
a.	Zergabilketa areagotzea.
b.	Aseguru etxeen irabaziak handitzea.
c.	Kaltetunei ahalik eta denborarik laburrenean kalte ordaina ematea.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

48. ¿Cuál es el propósito principal de la declaración amistosa de accidentes?	
a.	Aumentar la recaudación de impuestos.
b.	Aumentar las ganancias de las compañías aseguradoras.
c.	Indemnizar en el menor tiempo posible a los perjudicados.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

49. Adierazi zein den erantzun okerra:	
a.	Istripu adierazpen adiskidetsuak ibilgailuen kontsumoa murrizten du.
b.	Istripu adierazpen adiskidetsu bat betetzean, istripua gidari atzerritar batekin izan bada, Gutun Berdea edo Nazioarteko Aseguru Ziurtagiria eskatu behar zaio hari.
c.	Istripu adierazpen adiskidetsuaren inprimakian, istripua eragin zuen hasierako talkaren puntua eta norabidea adierazi behar dira ibilgailu bakoitzaren eskema inprimatuetan.
d.	Istripu adierazpen adiskidetsuaren inprimakian, istripuan inplikaturako ibilgailu bakoitzean hautemandako kalteak zerrendatu behar dira.

49. Señale la afirmación incorrecta:	
a.	La declaración amistosa de accidente hace que disminuya el consumo de los vehículos.
b.	Al cumplimentar una declaración amistosa de accidente, en caso de accidente con un conductor extranjero, hay que pedirle la Carta Verde o Certificado Internacional de Seguro.
c.	En el impreso de la declaración amistosa de accidente, deben señalarse en los esquemas impresos de cada vehículo el punto y la dirección del choque inicial que provocó el accidente.
d.	En el impreso de la declaración amistosa de accidente, deben relacionarse los daños apreciados en cada uno de los vehículos implicados en el accidente.

50. Pneumatiko baten presioa fabrikatzaileak ezarritakoa baino txikiagoa denean, erantzun hauetako zein da okerra?	
a.	Ibilgailua ezegonkor bihurtzen da.
b.	Itsaspena murrizten da.
c.	erregaiaren kontsumoa handitzen da.
d.	Ibilgailua mugitzeko behar den erregai kopurua murrizten da.

50. Cuando la presión de un neumático es inferior a la establecida por el fabricante, ¿cuál de las siguientes respuestas es falsa?	
a.	El vehículo se vuelve inestable.
b.	Disminuye la adherencia.
c.	Se incrementa el consumo de carburante.
d.	Disminuye la cantidad de carburante necesaria para mover el vehículo.



51. Nola eragiten du euriak gidatzean?	
a.	Ibilgailuaren itsaspena handitzen du eta irristatzea errazten du.
b.	Ibilgailuaren itsaspena handitzen du eta irristatzea murrizten du.
c.	Ibilgailuaren itsaspena galarazten du eta irristatzea gutxitzen du.
d.	Ibilgailuaren itsaspena galarazten du eta irristatzea errazten du.

51. ¿Cómo influye la lluvia en la conducción?	
a.	Gana adherencia y facilita el deslizamiento del vehículo.
b.	Gana adherencia y disminuye el deslizamiento del vehículo.
c.	Pérdida de adherencia y disminuye el deslizamiento del vehículo.
d.	Pérdida de adherencia y facilita el deslizamiento del vehículo.

52. Espainiako lan araudiaren arabera, enpresaburuek honako betebeharrak dituzte:	
a.	Gidarien lan denboraren erregistroa edukitzea eta urtebetez gordetzea.
b.	Erregistroa edukitzea, baina presentzia denborarena bakarrik.
c.	Gidarien lan denboraren erregistroa edukitzea eta 3 urtez gordetzea.
d.	Langileen atsedenaren erregistroa bakarrik edukitzea.

52. Según la reglamentación laboral española, los empresarios están obligados a:	
a.	llevar un registro del tiempo de trabajo de los conductores y conservarlo 1 año.
b.	tener un registro del trabajo de los conductores, pero solo del tiempo de presencia.
c.	llevar un registro del tiempo de trabajo de los conductores y conservarlo 3 años.
d.	tener un registro del trabajo de los conductores, pero solo de su tiempo de descanso.

53. Nola erregistratu behar da takografoa erabiltzetik salbuetsita dagoen ibilgailu batean egindako gidatzea, salbuetsita ez dagoen ibilgailu bat hartzen denean?	
a.	Beste lan batzuk gisa.
b.	Atseden gisa.
c.	Etenaldi gisa.
d.	Gidatze gisa.

53. ¿Cómo debe registrarse la conducción realizada en un vehículo exento del uso de tacógrafo, al hacerse cargo de otro que no está exento?	
a.	Como otro trabajo.
b.	Como descanso.
c.	Como pausa.
d.	Como conducción.



54. Astebetean 62 orduz gidatzen duen gidari batek arau hausteren bat egiten al du?	
a.	Bai, arina.
